

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

10751 *5/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak datuen babesaren arloan emandako araudira egokitzeko presako neurriena.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua –pertsone fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez–, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Europar Batasuneko Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) indargarbetzen baitu, bete-betean aplikatzekoa da Espainian iragan maitzaren 25az geroztik.

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra aldaketa sakona dakar datu pertsonalen babesaren alorrean indarrean dagoen araubidean, ez bakarrik funtsezko ikuspuntuaren aldetik eta behartuta dauden subjektuen konplimentuaren aldetik, baita ere, bereziki, Erregelamenduak berak arautzen dituen kontrol-agintaritzen gainbegiratzeko jardueraren aldetik.

Gainera, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra bete-betean aplikatzeak esan nahi du Erregelamenduak baztertu egiten dituela berak ezartzen duen araubidearekin bat ez datozen barne-zuzenbideko xedapenak. Hori gertatuko litzateke Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren hainbat manurekin, bai eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretu bidez onartutako haren garapen-erregelamendukoekin ere.

Europar erregelamenduko manu asko, bestalde, estatu kideen geroko garapenari (nahitaezkoa edo aukerakoa) lotzen zaizkio; guztira, berrogeita hamasei aldiz egiten dira geroratze horiek ordenamendu nazionaletara. Geroratze horien artean, Erregelamenduak honako beharkizunak ezartzen dizkie estatu kideei, besteak beste: kontrol-agintaritzen estatutua arautzea, haiekin batera ikerketa-jarduerak egiten dituen hirugarren estatu bateko ikuskatzaileei aplikatu beharreko araubidea zehaztea, edo Datuak Babesteko Europako Lantaldean estatu kidea ordezkatzeko duen agintaria izendatzea.

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorreko beste xedapen batzuek barne-zuzenbidearen doikuntza bat eskatzen dute, nahiz eta ez egon berariaz hara jotzeko hitzez hitzezko pasarterik. Esate baterako, Europako erregelamenduak ohiko jokabideak tipifikatzeko zehapen-araubidea ezartzen badu ere, ez ditu beste gai funtsezko batzuk arautzen, hala nola arau-hauste horien preskribatzeko epeak, uste baitu gai hori estatu kideen ordenamenduari dagokiola. Era berean, estatu kideen arteko lankidetzarako prozedura bat ezartzen du mugaz gaindikoak deritzen tratamenduetarako, zeinean inplikaturiko agintaritzak guztiek parte hartzen baitute, baina ez du arautzen nolako eragina izango duen estatu kideen barne-zuzenbideak prozedura horietarako Europako erregelamenduak aurreikusten dituen izapideen ondorioz.

Barne-araudiaren esparrua Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorreara egokitu beharrak bultzatuta, Ministroen Kontseiluak lege organiko baten proiektua onartu zuen 2017ko azaroaren 10eko bilkuran; gero Gorte Nagusietara bidali zen, eta une honetan Parlamentuko izapideak egiten ari dira.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta ezertan ere urratu gabe lege organiko batean bildu beharra datu pertsonalak babesteko oinarriko eskubidearen funtsezko edukia osatzen duten alderdiak, egia da halaber lege organiko baten erreserba ez diren gai jakin batzuetan nahitaezkoa eta urgentea dela lege mailako arau bat ematea, Espainiako zuzenbidea Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorreara egokitzeko. Beste modu batez esanda, errege lege-dekretu honen xedea da gure ordenamendua egokitzea Europako erregelamendura, maila organikoa izan gabe atzeratu ezin diren alderdi jakin batzuei dagokienez. Eta ulertu behar da horrek ez duela eragozten datuak babesteko legeria

organiko baten beharrezana, zeinak barne araudia erabat egokitu behar baitu alor horretan Europar Batasunak zuzenean aplikagarria den xedapen baten bitartez finkatutako estandarretara.

II

Errege lege-dekretu honek hamalau artikulua ditu, hiru kapitulutan bilduta, eta bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat. Haren edukiak gai hauek baino ez ditu hartzen: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra Espainian egokiro aplikatzeko barne-zuzenbidera ezinbestez eta lehenbailehen gehitu behar diren gaiak, non eta ez dauden Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua bidez presazko legegilearen eskumenetik kanpo.

I. kapituluak jorratzen du Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra 58.1 artikuluan kontrol-agintaritzei ematen dizkien ikerketa-ahalak egikaritzeko eskumena duten langileak identifikatzeko beharrezana. Horrek eskatzen du barne-zuzenbideak arautu dezan ahal horiek erabiltzeko modua, zer langilek egingo dituzten ikerketa eta ikuskapena, eta zertan dautzan Europako erregelamenduak berariaz ezarritako eskudantzia horiek Espainiako ordenamenduaren ikuspegitik. Era berean, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren 62.3 artikulua aplikazioaren ondorioz, beharrezkoa da zehaztea zer araubide aplikatuko zaien ikerketa bateratuetan parte hartzen duten beste estatu kideetako agintaritze ikuskatzaileetako langileei.

II. kapituluak Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ezarri duen zehapen-araubide berria antolatzen du: gaur egun 15/1999 Lege Organikoan dauden arau-hauste moten ordez, Erregelamenduaren 83. artikuluko 4, 5 eta 6 apartatuetan finkatu diren zehapenak jotzen du, guztiz kontu beharrezkoa baita. Gainera, badira bi kontu nahitaez eskatzen dutenak barne-zuzenbideak xedapenak eman ditzan zehapen-araubide horren eraginkortasuna bermatzeko, bai eta aplikatzen denean haren segurtasun juridikoa bermatzeko ere. Lehenengoa da zedarritzea zer subjektu eror litekeen aipatu zehapen-araubidea aplikatzearen ondoriozko erantzukizunean. Bigarrena, are garrantzitsuagoa, da Europako erregelamenduan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenen preskribatzeko epeak zehaztu beharra.

III. kapituluak, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra urratuz gero erabili beharreko prozedura arautzen da. Puntu honetan, kontuan hartu behar da Erregelamenduak praktikan hiru tratamendu mota bereizten dituela prozedura-arauek aplikatzerakoan, eta prozedura-arauek desberdinak aplikatuko lizkiekeela: mugaz gaindiko tratamenduak, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren 4.23 artikulua definituak; estatu kide batean tokiko garrantzia duten mugaz gaindikoak, Erregelamenduaren 56. artikulua hizpide dituenak, eta nazional hutsak joko liratekeenak, hala nola Erregelamenduaren 55. artikuluan aurreikusten direnak. Europako Erregelamenduak izapide espezifiko sorta bat aurreikusten du lehendabiziko bi kasuetarako: besteak beste, kontrol-agintaritze nagusiaren eskumena zehazteko behar direnak eta prozeduran interesa duten agintaritzen arteko erabaki adostua hartzeko bidea ematen dutenak. Kasu horietan, Europako araudiak dio agintaritze nagusiak nahitaez jarri behar dituela erabaki-proiektuak gainerako agintaritzen esku, haiek «egoki irizitako ohar arrazoituak» eman ditzaten epe mugatuetan, eta, haien artean akordiorik lortu ezean, ebazpena Datuak Babesteko Europako Lantaldearen esku utziko da.

Xedapen horiek prozedura gobernatzeko arauetara eraman behar dira baldin Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamaziorik aurkezten bada edo, erreklamaziorik ez badago ere, agentzia hori agintaritze nagusi bada beste estatu kide batean jasotako erreklamazio baten kasuan edo uste badu interesdun gisa parte hartu behar duela jada irekita dagoen prozedura batean.

Horrek guztiak eskatzen du zenbait fase espezifiko txertatzea prozeduran, hala nola erreklamazioak izapidetzeko onartzea edo espediente behin behinean artxibatzea baldin Datuak Babesteko Espainiako Agentziak erreklamazioa izapidetu ez baina haren gaineko ebazpena eman behar badu. Ezin baztertuzkoa da, bereziki, prozeduraren etendura txertatzea prozedura-arauetan, baldin eta beste estatu kide batzuetako agintaritzen iritzia

jaso behar bada, eta etendura horrek iraun behar du iritzia jasotzeko behar den besteko denbora, zeren, bestela, oso litekeena baita prozedurak iraungitzea, eta horrek ondorio negatiboak izango lituzke, ez bakarrik datuak babesteko arauak Espainian aplikatzeari dagokionez, baita oro har Europako herritarren oinarrizko eskubidea bermatzeari dagokionez ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia kontrol-agintaritzaren nagusia den kasuetan.

Azken finean, III. kapituluaren xedea da posible egitea Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorreko prozedura-araubideko espezialitateak aplikatzea testuinguru batean non, Europako erregelamendua zuzenean aplikatzeko bada ere, araubide horren babesean jada abian baitira garrantzi handiko prozedurak.

Azkenik, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren 68.4 artikulua betez, lehen xedapen gehigarriak Datuak Babesteko Espainiako Agentzia izendatzen du Espainiaren ordezkari Europako Lantaldean, zeinak jakinaren gainean jarriko baititu agintaritzaren autonomikoak Batasuneko erakunde horrek hartutako erabakiez eta haien iritzia eskatuko baitu haien eskumeneko gaiak direnean. Bigarren xedapen gehigarriak, bere aldetik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ebazpenen publizitateari buruzkoak jasotzen ditu, bere jardueraren gardentasuna bermatzeko Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren eratzeko prozedura-esparruan.

Ondorioz, adierazitakoak ikusirik, erabat justifikatua gelditzen da errege lege-dekretua emateko aparteko eta presako beharrez. Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra bete-betean aplikatzen ari denez 2018ko maiatzaren 25etik gure ordenamendua Erregelamendura erabat doitu arte –eta hori lege organiko berri baten bidez baino ez da posible izango–, ezin alboratuzkoa da lege mailako xedapen bat ematea Espainiako zuzenbidea zenbait arlotan Europar Batasuneko datuen babesari buruzko araudira egokitzeko, horrela benetan bermatu ahal izateko Konstituzioaren 18.4 artikuluko eskubidea segurtasun juridikoaren ingurumari batean. Alde horretatik, errege lege-dekretu honek indarraldi mugatua izango du: Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi, eta Parlamentuan izapidetzen ari den lege organiko berria indarrean jartzen denean amaituko da.

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik sortuko estatuaren oinarrizko erakundeei buruzko antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskundeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Labur-zurrean, esandakoaren ondorioz, kasu honetan, errege lege-dekretua Konstituzioaren araberako tresna zilegia da, aproposa eta egokia delako presako legegintzaren xedea lortzeko; hau da, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatutakoari jarraituz eta Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin batean laguntza emateko, aurreikusteko zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duena –esan nahi baita, ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–.

Beraz, errege lege-dekretu honetako neurri guztiek –oro har zein banan-banan hartuta–, haien izaera eta xedea ikusirik, bete egiten dute Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko eskatzen duen aparteko eta presako beharrezaren baldintza.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimenaz baliatuz, Justiziako ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministroen Kontseiluak 2018ko uztailaren 27ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Datuen babesaren arloko ikuskapena

1. artikulua. *Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ikerketa-jardueraren eremua eta langile eskudunak.*

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziako funtzionarioek edo Agentziatik kanpoko funtzionarioek –Agentziako zuzendariak berariaz gaituta– jardungo dute Agentziaren ikerketa-lanetan.

2. Ikerketa-jarduera bateratuen kasuan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 62. artikuluari jarraituz, Agentziarekin elkarlanean diharduten Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako kontrol-agintaritzetako langileek Espainiako araudiaren mende egikarrituko dituzte beren ahalmenak, Agentziako langileen gidaritzapean eta begiradapean.

3. Ikerketa-jarduerak egiten dituzten funtzionarioak agintaritzako agentetzat joko dira lan horretan ari direla, eta beren zereginak betetzen dihardutenean jakiten dutena isilpean gorde beharko dute nahitaez, baita lan hori utzi eta gero ere.

2. artikulua. *Ikerketa-jardueraren irismena.*

Ikerketa-lanetan dihardutenek beren egitekoak betetzeko behar duten informazio guztia bildu ahalko dute; ikuskapenak egin; beharrezkoak diren agiriak eta datuak erakusteko edo bidaltzeko eskatu; agiri eta datu horiek dauden tokian edo tratamenduak egiten diren tokian aztertu; haien kopiak eskuratu; tresna fisikoak eta logikoak aztertu, eta ikerketapeko tratamenduak eta tratamenduaren kudeaketa- eta euskarri-programak edo prozedurak egiteko eskatu. Ikerketa-ahalak, egoitzen barruan sartzeari dagokionez, arau prozesalak betez gauzatu behar dira, bereziki aurretiko baimen judiziala beharrezkoa den kasuetan. Organo judizialen edo bulego judizialen kasuetan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren bitartez egikarrituko dira ikuskapen-ahalmenak.

II. KAPITULUA

Datuen babesaren arloko zehapen-araubidea

3. artikulua. *Subjektu erantzuleak.*

1. Hauek dira 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta datuen babeserako Espainiako araudian ezarritako zehapen-araubidearen mende daudenak:

- a) Tratamenduen arduradunak.
- b) Tratamendu-eragileak.
- c) Europar Batasunean kokatuta ez dauden tratamenduen arduradunen edo eragileen ordezkariak.
- d) Ziurtapen-erakundeak.
- e) Jokabide-kodeak gainbegiratzeko baimena duten erakundeak.

2. Zehapen-araubidea ez zaio aplikatuko datuak babesteko ordezkariari.

4. *artikulua. Arau-haustea.*

Arau-hauste dira 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 83. artikuluko 4., 5. eta 6. apartatuetan aipatzen diren urraketak.

5. artikulua. *Arau-haustek preskribatzea.*

1. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 83. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aipatzen diren arau-haustek hiru urteren buruan preskribatuko dira.

2. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 83.4. artikuluan aipatzen diren arau-haustek bi urteren buruan preskribatuko dira.

3. Zehapen-prozeduraren hasierak geldiarazi egingo du preskripzioa, baldin eta interesdunak prozedura hasi dela badaki. Preskripzio-epea berriro zenbatzen hasiko da, zehapen-prozedura sei hilabetez geldirik badago ustezko arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoi baten ondorioz.

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia kontrol-agintaritzaren nagusia denean eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 60. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaionean, preskripzioa geldiaraziko da baldin interesdunak modu formalean jasotzen badu kontrol-agintaritzaren interesdunen mende jarritako hasteko erabaki-proiektuaren berri.

6. artikulua.. *Zehapenen preskripzioa.*

1. 2016/679 (EB) Erregelamendua aplikatzearen ondorioz jartzen diren zehapenak epe hauetan preskribatuko dira:

a) 40.000 euroko edo hortik beheragoko zehapenak urte baten buruan preskribatuko dira.

b) 40.001 eta 300.000 euro arteko zehapenak bi urteren buruan preskribatuko dira.

c) 300.000 eurotik gorako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira.

2. Zehapenen preskripzio-epearen zenbaketa hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena betearazi ahal den egunaren edo ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkezteko epea amaitu den egunaren biharamunetik.

3. Preskripzioa geldiarazi egingo da betearazpen-prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela; preskripzio-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura sei hilabete baino gehiagoz geldiarazita egon bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

III. KAPITULUA

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra urratuz gero erabili beharreko prozedura

7. artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. Kapitulu honetako xedapenak kasu hauetan aplikatuko dira Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapideturiko prozeduretan: eragindako pertsona batek erreklamatzeko badu ez diotela jaramonik egin 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideak egikaritzeko egin duen eskabideari, eta Agentziak ikertzen badu Erregelamenduan edo datuen babeserako Espainiako araudian arau-hausterik egin denetz.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapideturiko prozedurak 2016/679 (EB) Erregelamenduaren eta datuen babeserako Espainiako araudiaren mendean egongo dira, eta, aurrekoekin kontraesanean ez badaude, osagarri moduan, administrazio-prozedurei buruzko arau orokorren mendean.

8. artikulua. *Prozedura hasteko modua eta iraupena.*

1. Prozeduraren gai bakarra baldin bada ez zaiola jaramonik egin 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideak egikaritzeko eskabide bati, izapidetzea onartzeko erabakiaren bidez hasiko da, zeina hurrengo artikuluan agindutakoaren arabera hartuko baita.

Kasu horretan, sei hilekoa izango da prozedura ebazteko epea, izapidetzea onartzeko erabakia erreklamatzaileri jakinarazten zaionetik zenbatuta. Epea igarota, interesdunak baietsizat jo ahal izango du erreklamazioa.

2. Prozeduraren xedea baldin bada jakitea 2016/679 (EB) Erregelamenduan edo datuen babeserako Espainiako araudian arau-hausterik egin denetz, prozedura hasiko da hasteko erabakiaren bitartez, Agentziak bere kabuz hartua, edo erreklamazioaren ondorioz.

Prozedura oinarritzen bada Datuak Babesteko Espainiako Agentzian aurkezturiko erreklamazio batean, Agentziak aldeztu aurretik erabakiko du izapidetzeko onartzen duen ala ez, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2016/679 (EB) Erregelamenduen 60. artikuluko arauak aplikagarriak direnean, zehapen-prozedura hasteko erabaki-proiektuaren bidez hasiko da prozedura, zeinaren berri interesdunari modu formalean emango baitzaio, errege lege-dekretu honen 5. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Behin erreklamazioa izapidetzeko onartuz gero, eta halaber Datuak Babesteko Espainiako Agentziak bere ekimenez diharduenean, hasteko erabakiaren aurretik aurretiazko ikerketa-jarduketan fasea egon daiteke, zeina errege lege-dekretu honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera gobernatuko baita.

Prozedurak bederatzi hilabete iraungo du, gehienez ere, hasteko erabakiaren egunetik edo, hala badagokio, hasteko erabaki-proiektuaren egunetik zenbatuta. Behin epe hori igarota, iraungi egingo da eta, horrenbestez, jarduketak artxibatu egingo dira.

3. Prozedura izapidetu ahal izango da orobat Europar Batasuneko beste estatu kide bateko kontrol-agintaritzak Datuak Babesteko Espainiako Agentziari komunikatzen badiu erreklamazio bat aurkeztu dutela beste kontrol-agintaritzaren horretan eta Espainiako Agentzia kontrol-agintaritzaren nagusia bada prozedura izapidetzean 2016/679 (EB) Erregelamenduko 56. eta 60. artikuluen arabera. Kasu horretan, 1. apartatua eta 2. apartatuko lehenengo paragrafoan, hirugarrenean, laugarrenean eta bosgarrenean xedatutakoa aplikatuko da.

4. Artikulu honetan ezarritako izapidetze-epeak, bai eta errege lege-dekretu honen hurrengo artikuluen 5. apartatua araututako izapidetzeko onartzeari buruzkoak eta 11.2 artikuluan aurretiazko ikerketa-jarduketan iraupenari buruzkoak ere, eten egingo dira automatikoki baldin eta, 2016/679 (EB) Erregelamenduen agindutakoaren arabera, informazioa, laguntza edo nahitaezko erabakia eskatu behar bazaio, edo kontsulta egin, Europar Batasuneko organo edo erakunderen bati edo estatu kideetako kontrol-agintaritzaren bati, eta etendurak iraungo du eskaera egiten denetik Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erabakia jakinarazten zaion arte.

9. artikulua. *Erreklamazioak izapidetzeko onartzea.*

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezten denean, Agentziak hura izapidetzeko onartu edo ez aztertu beharko du, artikulu honetan agindutakoari jarraituz.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ez ditu erreklamazioak izapidetzeko onartuko datu pertsonalen babesaren gainekoak ez direnean, nabarmen funtsik gabeak direnean, abusuzkoak direnean edo arau-hausteen arrazoizko zantzurik ez dakartenean.

3. Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak erreklamazioak izapidetzeko ez onartzea erabaki ahalko du baldin eta tratamenduaren arduradunak edo eragileak, Agentziak aldeztu aurretik ohartarazita, neurri zuzentzaileak hartu baditu datuen babeserako legeriaren urraketa posiblearen aurka egiteko eta inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Eragindakoari kalterik sortu ez izana.
- b) Neurri horiek aplikatuz, eragindakoaren eskubideak erabat bermatuta geratzea.

4. Erreklamazioa izapidetzeko onartu ala ez erabaki aurretik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak erreklamazioa bidali ahal izango dio tratamenduaren arduradunak edo eragileak izendaturiko datuak babesteko ordezkariari –halakorik bada–, hilabeteko epean erantzuna eman diezaion.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, halaber, tratamenduaren arduradunari edo eragileari bidali ahal izango dio erreklamazioa, baldin eta datuak babesteko ordezkariak izendatu ez bada eta gatazkak epaiketaz kanpo konpontzeko sistemaren bati atxikita ez badago; arduradunak edo eragileak hilabeteko epea izango du erreklamazioari erantzuna emateko.

5. Hiru hileko epean jakinarazi beharko zaio erreklamatzailerari izapidetzeko onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakia, bai eta, hala badagokio, erreklamazioa eskudun irizten zaion kontrol-agintaritza nagusiari bidali izanaren erabakia ere. Epe hori igaro eta jakinarazpenik ez badago, ulertuko da erreklamazioaren izapideak aurrera doazela kapitulu honetan agindutakoari jarraituz, erreklamazioa Datuak Babesteko Espainiako Agentzian sartu eta handik hiru hileko epea betetzen denetik aurrera.

10. artikulua. *Lurralde-irismena zehaztea.*

1. Errege lege-dekretu honen 8.3 artikulua aipatzen dituen kasuetan izan ezik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, beste edozein jarduketa egin aurretik –baita erreklamazioa izapidetzeko onartzea ere edo aurretiazko ikerketa–, jarduketa hastea, bere eskumena aztertu beharko du, bai eta erabaki erabili beharreko prozedura nazionala ala mugaz gaindikoa den, edozein modalitatetan.

2. Agentziak uste badu bera ez dela prozedura izapidetzeko kontrol-agintaritza eskuduna, kontrol-agintaritza nagusi eskuduntzat jotzen duenari bidaliko dio erreklamazioa, beste izapiderik gabe, hark behar bezala bide eman diezaion. Agentziak inguruabar hori jakinaraziko dio erreklamazioa aurkeztu duenari, halakorik bada.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen bidalketa-erabakiak prozeduraren behin-behineko artxibatzea dakar, hargatik eragotzi gabe Agentziak, hala badagokio, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 60. artikuluan 8. apartatuan jasotzen den ebazpena ematea.

11. artikulua. *Aurretiazko ikerketa-jarduketak.*

1. Prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, eta erreklamazioa izapidetzeko onartuz gero, halakorik badago, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak aurretiazko ikerketa-jarduketak egin ahalko ditu, prozedura izapidetzea justifikatzen duten gertakariak eta inguruabarrak hobeto zehazteko.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak jardungo du datu pertsonalen tratamendu masiboa dakarren tratamendu-ikerketa beharrezkoa den kasu guztietan.

2. Aurretiazko ikerketa-jarduketak I. kapituluaren agindutakoaren mende egongo dira, eta ezin izango dute iraun hamabi hilabete baino gehiago, izapidetzeko onartzen den egunetik edo hasiera agintzen duen erabakiaren egunetik zenbatuta, Agentziak bere kabuz diharduenean edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko kontrol-agintaritzak bidalitako komunikazioaren ondorioz diharduenean, errege lege-dekretu honen 8.3 artikuluan arabera.

12. artikulua. *Zehapen-ahala egikaritzeko prozeduraren hasiera agintzen duen erabakia.*

1. Aurreko artikuluko jarduketak amaitzen direnean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariaren eginkizuna izango da, hala egokitzen denean, zehapen-ahala egikaritzeko prozeduraren hasiera agintzen duen erabakia ematea. Bertan zehaztuko dira: gertakariak, prozedura zer arau-hauste izan daitekeen, pertsona edo erakunderen aurka bideratzen den, arau-hausterik egin den, eta egokitu dakioken zehapena.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia kontrol-agintaritza nagusia denean eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 60. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaionean, hor bertan agintzen denari men egingo dio zehapen-prozedura hasteko erabaki-proiektuak.

13. artikulua. *Behin-behineko neurriak.*

1. Aurretiazko ikerketa-jarduketak egiten diren bitartean edo zehapen-ahala egikaritzeko prozedura bat hasi bada, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak behin-behineko neurriak erabaki ahalko ditu, modu arrazoituan, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea babestearen alde beharrezko eta proportziosko diren heinean, eta bereziki 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 66.1 artikuluan jasotakoak, datuak kautelaz blokeatzea eta eskatutako eskubideari berehala jaramon egiteko betebeharra.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak uste badu datu pertsonalen tratamendua jarraitzeak, datuok komunikatzeak edo nazioartean transferitzeak kalte larria ekar diezaioketela datu pertsonalak babesteko eskubideari, datuak blokeatzeko eta datuen tratamendua eteteko agindu diezaieke tratamenduen arduradunei edo eragileei, eta, haiek aginduok bete ezean, datuak geldiaraz ditzake.

3. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamaziorik aurkezten bada 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideei epe barruan jaramonik egin ez zaielako, besteak beste, eskatutako eskubideari erantzuteko betebeharra erabaki ahalko du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, edozein momentutan –baita zehapen-ahala egikaritzeko prozedura hasi baino lehen ere–, arrazoitutako ebazpen bidez eta tratamenduaren arduraduna entzun ondoren, eta prozedurak aurrera jarraituko du erreklamazioak hizpide dituen gainerako gaietarako dagokienez.

14. artikulua. *Beste lege batzuek Datuak Babesteko Espainiako Agentziari esleitzen dizkioten eskumenei buruzko prozedura.*

Kapitulu honetako xedapenak prozedura hauei ere aplikatuko zaizkie: beste lege batzuek esleitutako eskumenak egikaritzean Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapidetu behar dituenen.

Lehen xedapen gehigarria. *Espainiaren ordezkartza Datuak Babesteko Europako Lantaldean.*

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia datu-babeserako agintaritzen ordezkari komuna izango da Datuak Babesteko Europako Lantaldean.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak jakitun ipiniko ditu datuen babeserako agintaritze autonomikoak Datuak Babesteko Europako Lantaldean hartzen diren erabakiez, eta haien iritzia eskatuko du haien eskumeneko gaiak aztertzen direnean.

Bigarren xedapen gehigarria. *Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ebazpenak argitaratzea.*

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak bere zuzendariaren ebazpen hauek argitaratuko ditu: 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideei jaramonik egin behar zaien ala ez erabakitzen dutenak, erreklamazio-prozedurei amaiera jartzen dietenak, aurretiazko ikerketa-jarduketak artxibatzen dituztenak, ohartarazpen batez zehatzen dituztenak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 46. artikulua aipatzen dituen erakundeak, kautelazko neurriak ezartzen dituztenak eta Agentziaren estatutuak berak agintzen dituenak.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Prozeduren araubide iragankorra.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean hasita dauden prozedurek aurreko araudia bete beharko dute, betiere errege lege-dekretu honek ezarritako araubideko xedapenak interesdunarentzat aldekoagoak ez badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie halaber prozedura hauei: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua –abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu

baitzuen— IX. tituluko III. kapituluko 2. atalean aipatzen diren aurretiazko jarduketak hasiak dituztenei.

Bigarren xedapen iragankorra. *Tratamendu-eragilearen kontratuak.*

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua babesean 2018ko maiatzaren 25a baino lehen sinatutako tratamendu-eragilearen kontratuak indarrean jarraituko dute bertan adierazitako epemuga iritsi arte edo, epemugarik gabe hitzartu badira, 2022ko maiatzaren 25a arte.

Epe horien barruan, alderdietako edozeinek eskatu ahalko dio besteari kontratua aldatzeko, baldin helburua bada kontratua bat etortzea 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabetuta gelditzen dira errege lege-dekretu honen kontra dauden maila bereko zein beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren artikulua hauek:

- a) 40. artikulua.
- b) 43.etik 49. artikulura artekoak, 46. artikulua salbu.

Azken xedapen bakarra. *Indarraldia.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du harik eta datuak babesteko legeria organiko berria indarrean jartzen den arte, zeinaren helburua izango baita Espainiako ordenamendu juridikoa egokitzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendura –pertsone fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez– eta haren xedapenak osatzea.

Madriren, 2018ko uztailaren 27an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN